

## Arratiako III. Rallya eta auto erakusketea garagarrilaren 9an izango da

11. orrialdea

## Folklore Bizian Jaialdia Areatzan

Jaialdia garagarrilaren 25ean izango da. Han, Galdakaoko Andra Mari jantza taldea, Irlandako Ensemble Folklorique Absolutely Legless Dance Company eta Brasilgo Ensemble Folklorique Ballet de Amazonia izango dira. Brasilgoak, kolore askotako lumak dituela aldean, gerra jantzak egingo dabez. Irlandarrak, doinu zeltikoak ekarriko dabez gurera. 12. orrialdea



## Dimesten taldea unidate didaktikoa prestatzen dabil Diman

13. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 255

2016ko garagarrilaren 1a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Durundi Barri, 50 urte jantzan

Lemoan bertan, 1966ko San Inazio egunean egin eban Durundi Barri jantza talde sortu barriak, publiko aurreko bere lehenengo jantzea.

Lemoako jaietan gogoratuko dabe urteurrena eta Durundi Barrikoak izango dira txupina botako dabenak. Omenaldia be egingo deuse Joseba Etxebarria fundatzaileari. Gaur egun, 25 ume dagoz eta helduentzako ikastaroak be antolatuten ditu Durundi Barriak. Euskal jantza tradizionala egiten dau taldeak.

Mende erdian sasoi onak eta ez hain onak bizi izan ditu. Jente gazteak sortu eban taldea

eta ilusino handiko sasoi izan zan ha. Diru gitxi baina inguruko jente guztiaren inplikazioa izan eben. Geroago, 1980 eta 1990 hamarkadetan, nazinoarteko hartu-emon eta topaketa jentetsuen sasoi izan zan. Orduan be, herri guztiaren inplikazioa ekarten dabe gogora protagonistak.

Etorkizunari ilusinoz begiratuten deuse Durundi Barrikoak. Urri bigarrenaren 1ean egingo dabe ospakizun jaia. 8. eta 9. orrialdeak



Lemoako Durundi Barri Dantza Taldea.

### ARTEA

## Arteako Kultura Dinamizetako Parte Hartze Prozesua

Garagarrilaren 1ean, Arteako Kultura Dinamizetako Parte Hartze Prozesuaren, eta horren bidez orain arte egindakoaren barri emongo dabe partaideak. Arrastiko zazpiretan Kultur Etxean izango da ekitaldia. Bertara, herritarrek eta herriko alkarte guztiak dagoz konbidautu.

Alex Carrascosaren gidaritzapean, parte hartze prozesuaren bidez, kalidadeko kultur ekintzak antolatu eta Kultur Etxea berrantolatuteko asmoz, zezeiletik bagilera hainbat saio egin ditue Artean. Saiootan landutakoa ipiniko dabe mahai gainean.

Ekitaldiaren ostean mokadutxoak egingo da bertaratuten diran guztiak.

### ARRATIA

## Auzoetan jaiak hile osoan

Garagarrilean hainbat jai ospatuten dira auzo eta ermita inguruetan. Hilaren 2an santomasak ospatuko dabez Areatzan eta 10ean, sankristobalak Igorreko San Kristobal auzunean. Hilaren erdikaldean, Santa Marina, San Segismundo eta Madalenak ospatuten dira eta amaieran Santiago eta saninazioak. Aurten, Arteako Santamañe eta Santiagoko jaiak indartu ditue eta programa osoagoak prestatu dabez. Izan be bietan, Arteako produktuen azokak egingo dira. 7. orrialdea

### LEMOA

## Lemoako jaiak hile amaieran

Garagarrilaren 27tik 31ra, ekintzaz betetako bost eguneko egitaraua prestatu dabe Lemoan herriko jaiak ospatuteko. Kirol eguna, alkartasun eguna, mozerro eguna, gastronomia eta gaupasa eta euskal jai izenpean, ondo pasetako modu ugari egingo da. Ibaizabelatik baltsen jeitsiera barikuan izango da, hilak 29. Kontzertuak jagokienean, talde indartsuak joko dabe Lemoan: Eskean Kristok barikuan eta Su ta Gar-ek zapatuan. 5. orrialdea



Udarako BEGITUREN kamiseta barriak salgai

10 eurotan, Begitu-lagunak 8 euro

Bialdu mezua [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)  
helbidera neurria adierazoz

## ARRATIA ZURI-BALTZEAN

### 1933KO HAUTESKUNDE OROKORRAK: ISTILUAK DIMAN ETA IGORREN

1933an espainiar Errepublikari alde erabakior baten sartu zan, ordura arte agintean izan zan errepublikar-sozialisten koalizioa une kritikoak igaroten egoan eta egoera hau 1933ko zemendiaren 19an, hauteskunde orokorretara deituz erresolbatu zan. Hauteskunde honek bost bozkatu eben andrak lehen aldiz Espainian.

Bizkaian lurralde-barruti bi bereiztu ziran: Bizkaia-uriburua eta Bizkaia-probintzia, eta Arratiako herriak azken horretan egozan. Bizkaia-probintzia lurralde-barrutian bost hautagai-zerrenda aurkeztu ziran: Eskoiko koalizioa: Jose M<sup>o</sup> Areilza (Renovación Española) eta Marcelino Oreja (Comunión Tradicionalista); Eusko Alderdi Jeltzalea: Jose Antonio Aguirre eta Heliodoro de la Torre; PSOE-

Accion Republicana-PRRS Independiente alderdien Koalizioa: Joaquín Bustos (PSOE) eta Ernesto Ercoreca (Acción Republicana); Partido Republicano Radical-Socialista: Ramón Meced; Partido Comunista de España: Aurelio Aranaga eta Sebastián Zapirain. Beraz, bederatzi hautagai eta hiru aukeratu behar, eta hautale bakotzak botoa biri emon eikean.

Kontutan hartzekoa da botoak erostea eta koakzino edo behar-teak praktika normalak zirala garai haretan. Zemendiaren 23ko Euzkadi egunkari jeltzaleak Dimari buruz zera inoan: "Los conocidos caciques han hecho toda clase de coacciones con dinero, obligando a los inquilinos y hasta propietarios que viven en Bilbao, y así en muchos pueblos han sido presentados para que voten a

los monarca-traditionalistas, diciendo que casi todas las fábricas son de los monárquicos y que les emplearán en los trabajos a todos los jóvenes y tomar lista de ellos de casa en casa y que empezarán a explotar la mina de Artaun de este pueblo, con la que tendrán trabajo para siempre".

Baina gertaerak urrinago joan ziran eta bozketa egun berean, boto erosten ebilen Eskoiko Koalizinoko delegadua eta txoferra, kotxe eta guzti, Indusiko troka batetik behera boto ebezan. Gertaera horren ondorioz Durangoko epaileak Igorreko 32 jeltzaleren atxiloketea agindu eban eta euretarik 17 fiantza barik giltzaperatuak izan ziran. Euzkadiren arabera, "Claro está que a un accidente casual —pues las circunstancias en que tuvo lugar lo demuestran claramente— se le quiso dar los caracteres de un atentado".

Hurrengo domekan mezatarra joateko etxetik urtetan egoanean atxilotu-etarik baten semea, Sabin Atutxa Solatxi bost urteko mutikoa, harrikada batez zauritu eben, Euzkadiko inoanez, "herido cobardemente..."

por un enemigo del nacionalismo". Erasotzailea ez zan identifikatua ez atxilotua izan.

Ondoko laukian ikusi daitekenez, bederatzi herritik zortzitan jeltzaleak izango dira jaun eta jaube, bederatzigarrenean, Areatzan, tradizionalistak (lehenagoko karlistak) nagusitu ziran. Errepublikarrak, ordea, boto gitxi batzuk bakarrik lortu ebezan eta jarraitzaile gehien Lemoan eta Bedian euki ebezan. Beste kandidatura biak ez eben ezelango eraginik izan.

Jon Urutxurtu

HERRIA	Boto emoleak	J.A. Aguirre	Eliodoro De la Torre	Marcelino Oreja	J. M <sup>o</sup> Areilza	Ernesto Ercoreca	Joaquín Bustos	Beste batzuk	Zuriz
Arantzazu	121	88	87	31	31	2	2	0	0
Areatza	391	157	153	223	219	11	11	0	4
Artea	472	299	293	169	163	9	9	2	2
Bedia	391	294	294	46	46	51	50	0	0
Dima	1080	667	667	399	399	9	9	3	0
Igorre	819	566	549	244	219	13	13	0	30
Lemoa	750	486	478	201	193	68	65	4	1
Ubide	165	106	104	54	54	5	5	0	0
Zeanuri	1178	733	718	445	428	17	15	6	1

TELEFONO INTERESGARRIAK

**Larrialdiak**

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

**Guardiako Farmaziak**

**09:00etatik 22:00etara**  
**Bagilaren 27tik garagarilaren 3ra**  
Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

**22:00etatik 09:00etara**

Melero. Amorebieta-Etxano.

**Garagarilaren 4tik 10era**

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7  
Tel.: 94 631 73 11

**22:00etatik 09:00etara**

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

**Garagarilaren 11tik 17ra**

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33  
Tel.: 94 673 70 54

**22:00etatik 09:00etara**

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

**Garagarilaren 18tik 24ra**

Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27  
Tel.: 94 673 61 09

**22:00etatik 09:00etara**

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

**Urte osoan**

**22:00etatik 09:00etara**

Lucía Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

**Medikuak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 631 56 30

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 45 03 61

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

**Udaletxeak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

**Udalen Mankomunitatea**

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

**Gorbeialde**

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea**

94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea**

94 673 62 51

**Gorbeialde Irratia**

94 631 52 90

**Trenak**

Euskotren 902 543 210

**Bizkaibus\* 902 222 265**

**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

**Otxandiotik urteerak:**

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Artea-Zeberio-Arriorriaga**

Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan 06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

**Zeberio-Arriorriaga**

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10, 11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10.

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

**Arriorriaga-Zeberio-Artea**

Arriorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Artearaino heltzean da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Arriorriaga-Zeberio**

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40. Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

**La Union\* 94 427 11 11**

**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean.


Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.  
**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.  
**Telefonoa:** 94 631 73 14.  
**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)  
**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)  
**Zuzendaria:** Iñigo Iruarizaga.  
**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.  
**Erredakzino taldea:** Illart Gumuzio.  
**Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.  
**Publizidatea:** Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.  
**Banaketea:** Marta Rodríguez, Pablo Rodríguez eta Rut Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Esti Olibares, Igor Perez eta Azibar Sagarra (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).  
**Tiradea:** 7.000 ale.  
**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

**Babesleak:**



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



## ZEURE BERBEA

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri-gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkarte

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak: [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Eperdi



Gure gorputzaren anatomian, bizkarrazurra eta hanken artean dagoan atzeko alde mamitsuari, eperdi (eperdie, agoskatuta) esaten deutsagu. Batuaz, ipurdi da. Hona hemen eperdi berbeagaz lotutako beste berba honeek: 1) eperdiko erretana, eperdiaren ertzari esaten jako (batuaz, ipurdiko ertz); 2) eperdiko hazur edo epermukur, sakro hazurra da (batuaz, ipurtezur); 3) eperdiko zulo, uzkia edo tutua da (batuaz, ipurtzulo). Eperdi berbeak baditu beste esangura honeek be: 1) arbolearen enborraren beheko alde; eta 2) ontzi (basu) baten beheko alde.

## ERETXIA

### Neurohezkuntza ate joka

**A**spaldi honetan, hainbat lekutan neurohezkuntzari buruz entzun dot. Neurohezkuntza, psikologia, neurozientzia eta hezkuntzak daukien interakzinetik sortutako diziplina da.

Helburu garrantzitsuena irakasleen praktikea hobetuten lagundutea da. Bere intenzinoa, garunak zelan ikasten eta zelan funtzionetan dauan jakinda, praktika pedagogiko eta ikasketa prozesuak zelan hobetu daitekezan azaltzea da. Gakoa, garunak zelan funtzionetan dauan beti gogoan izatea ei da.

Neurohezkuntzak defendiduten dituan idea asko ez dira barriak, baina ikasleak behar egiteko modu batzuk zergaitik funtzionetan daben eta beste batzuk zergaitik ez, azaltzen dau eta hau ebidentzia zientifikotik eta enpirikotik egiten dau.

Gure burmuina ikasteko diseinauta dago eta frogatuta dago bizitza guztian zehar ikasi egiten dauala. Zentzu honetan ikastea saihestezina da, horregaitik eskolan plastizidade hau aprobetxauz, haurrai ikasketa esperientzi aberatsak, probokatzailak eta suspergarriak emon behar deutseguz, jakiteko gogoia biztuteko.

Eskolan, oso garrantzitsua da gure praktika planteatzerakoan, ikaslea benetako protagonista moduan ulertzea. Eurak izan daitezala egiten dabenak, pentsetan dabenak, zelan pentsetan daben ohartzen diranak, proposatzen dabenak, konbenziduten eta argudiatzen dabenak, hipotesiak formuletan dabezanak, euren ideak eta eretxiak adierazoten dabezanak, konponbideak topatzen dabezanak, fenomenoak interpretetan dabezanak... Gure zerebroa modu aktiboan ikasteko diseinauta dago, Benjamin Franklinek esaten eban moduan: "Esan eidazu eta ahaztuko dot; irakatsi eta gogoratuko dot; tar-tean sartu naizu eta ikasi egingo

### ESTI AKESOLO

Irakaslea

dot".

Honetaz guztiaz gainera, ezin dogu ahaztu, garrantzia bardina daukala gelan emozionalki positiboak diran egoerak bultzatzea, non umeak lasai eta seguru sentitzen diran, badakielako esaten eta pentsetan dabenagaitik ez dituela epaituko.

Aldi berean neurohezkuntzak be badino, kaltegarria dala ikaslea emozionalki negatiboak diran egoerak erlazionetea. Adibidez: azterketetako estresa, ebaluatua izatearen bildurra, ariketa errepikakorak eta guztiz dekontestualizauak... Egia da, gatz egiten dala, era honetan ikasten jarraitu gurako dabela pentsetea.

Umeak ikasteko plazerra sentidu dagiela beharrezkoa da. Emozionalki, ikasketa esperientzi positiboak bizitea, beharizan eta eskubide bat da. Emozinoa eta ikasketea berez lotuta dagoz.

Halan ba, badakigu zein dan modurik eraginkorra eta arrakastatsua irakasteko, zientifikoki frogatuta dago eta. Horregaitik, ezin gara eskoletan sarri entzuten diran "beti holan egin da...", "modak dira..." eta antzeko esapidetan babestu. Gure praktika hoherentza aldatuteko momentua heltzean dagoala emoten dau... Eta ez dinot nik, neurohezkuntzak dino.

**BATZ** 50 urte  
BATZ, S. KOOP.  
Torrea auzoa, 32  
48.140 IGORRE (BIZKAIA)  
IZAN GINAN...  
...BAGARA ETA IZANGO GARA

## LUMATUTEN

SARA GUTIERREZ  
EGILEORAlkarrizketea da  
gatazka guztiak  
konpontzeko  
bidea

**7**Kan irakurri neban Victoria Sandino, Colombiako FARCeko komandanteari egindako alkarrizketea eta bertan kontetan dauan anekdota bat aitatu gura dot, sano adierazgarria dalako ikusteko zein garrantzitsua dan alkarrizketea eta hartu-emon zuzena edozein gatazta gainditzeko orduan.

Victoria Sandino, FARC-EPen egitura barruan Genero azpibatzenaren sorrera sustatu eban. Genero azpibatzen hau gerrillako andrak zein Kolonbiako gobernuko ordezkariak osotuten dabe. Batzorde honen helburua da: Kolonbiako andren abotsa eta proposamenak entzutea eta bake prozesuan eta akordioetan jasota geratzea.

Orain Kuban dabiz alkarrizketak egiten bake prozesua

bideratzeko.

Victoria Sandinok kontetan dau La Habanara heldu eta lehenengo egunetan azpibatzen egoan Gobernuko andra ordezkariagaz hartu-emona sano tirabiratsua izan zala. Behin berbaz hasi eta egun gitxitara, euren arteko hartu-emona normalduten hasi zan. Zinera afizionauak ziran biak eta DVDak be trukutzen ebezan.

Izan be, Victoriak DVD bat eukan aspaldi itzultzeko eta beti ahaztu!

Halako baten gobernuko andrak DVDa eskatu eutsan eta Victoriak erantzun: "Ai Elena, hilko nauzu, barriro ahaztu egin jata!" Eta besteak erantzun: "*Si no te he matado hasta ahorita, ya que te voy a matar, te voy a dar un abrazo*" "*Yo también te quería matar*" erantzun eutsan Victoriak irribarre batez eta biak besarkatu ziran.

Victoriak dino anekdota honek gerrilla eta gobernuaren arteko alkarrizketak zelan doazen oso ondo islatzen dauala. Eta nik neure buruari galdetzen deusat, gerrilla eta gobernuo andren artean sortu dan hurbiltze horrek ez ete daukan zerikusia sorrida-deagaz be. Nik uste baietz!

## ZERTZEAN



ARITZ ARRIZABALAGA

## Gozamena

**A**maitzean, ohearen alde banatara egin dute biak. Arnasketa aztoratuegia apurka-apurka bere onera etortzen ari den bitartean pentsatu du orgasmoa bai, orgasmoa lortu duela, baina tristea izan dela. Egun bi ez dira sekula berdinak izaten eta ohe kontuak ere ez.

Dena den, horrelako egunetan ohekidearengan pentsatzen du, besteak gozatzeak ere bete egiten baitu, hobeto sentitzen da gozarazi duela jakitean, irribarre inozo batez "bai, gozatu dut" entzuten duenean. Horrelakoetan bere sexualdia tristea izan dela ahaztu egiten du ia, berak ez gozatu arren (gehiegi); bestea, behintzat, sugarretan egon delako.

Amaierara iritsi eta segundo gutxira sortu zaio kezka. Biluztu aurretik, biluztu ondoren eta hasperenka egon diren minutuetan, pentsamendua beste norabait joanagatik, egin ahalak eta bi egin ditu plazera so-

rrarazteko. Bere eguna ez zela bazekielako. Elkarren gorputzak miazkatzen ari ziren bitartean konturatu da ezetz, gaur ez zela hartzeko eguna, ematekoa zela.

Eta eman egin du, indarrez, berotasunez.

Hala ere, eta, ohekidearen hasperenak bereak baino indartsuagoak iruditu zaizkion arren, zalantzan dago. Amaierara iritsi dira biak, baina lasai egoteko galdera egin behar dio, benetan gozarazi duela jakin behar du.

Izarak gainetik kendu, alboz jarri eta galdera egin dio.

- Gozatu duzu?

Ohekideak segundo pare bat erabili du buelta emateko. Gero, irribarre inozo bat marraztu zaio ezpainetan

- Bai, gozatu dut -erantzun dio-. Eta zuk?

- Bai pila bat.

\* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerro, eskatu egiguz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

**H**eldu da uda, eta udagaz batera BEGITUKO Argazki Lehiaketea. Eguzkia, hondartza, mendia, biajeak... oporrak geugaz konpartiduteak saria dauka: persona birentzako astegoi bat Euskal Herriko landetxe baten, oporrak amaitutakoan, momentu bereziak amaitu ez daitezkan.

## Oinarriak:

- 1- Parte hartzaileak: BEGITU Aldizkaria jasoten dauan edonor.
- 2- Gaia: argazkiak 2016 urtean egindako biajeetan edo oporretan egindakoak izango dira.
- 3- Lanen ezaugarriak: Aurkezten diran argazkiak, non, nok eta noz atera diran esan behar da. Gehienez 3 argazki bialdu ahal izango dira personako.
- 4- Nora bialdu: Argazkiak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera bialdu behar dira.
- 5- Aurkezteko epea: 2016ko garagarilaren 1etik urri lehenengoaren 27ra arte aurkeztu daitezke argazkiok. Abuztua eta urri lehenengoko zenbakietan argitaratuko dira batzuk. Dana dala, horrek ez dau esan gura argitaratutako horreek dirala irabazleak.
- 6- Epaimahaia: BEGITU Aldizkariako erredakzino taldeak osotuko dau.
- 7- Epaia: Epaimahaia urri lehenengoaren bigarren hamabostaldian batuko da epaia emoteko eta urri bigarrenean argitaratuko da.
- 8- Saria: Persona birentzako astegoi bat Euskal Herriko landetxe baten.
- 9- Oharra: Lehiaketa honetan parte hartzean dabenak honeek oinarriok onartuten dabazala esan gura dau.



**Gorosti**  
LORAZAINTZA  
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
[gorosti@gorostisci.com](mailto:gorosti@gorostisci.com)

Zugaitik BEGITUten dogu  
A.P.I. 495  
[www.inmobiliarialarrea.com](http://www.inmobiliarialarrea.com)  
Lehendakari Agirre, 8 behea  
48140 Igorre  
Tfnoa: 94 631 80 04

**FISIK**  
FISIOTERAPIA ETA  
ERREHABILITAZIO ZENTROA  
Tel. 94 685 11 16  
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

ARRATIA

# Boto gitxiago izan arren, EAJ-PNVk eta EH Bilduk lehen eta bigarren indarrak izaten jarraituten dabe

**Erredakzioa**

Bagilaren 26ko Espainiako Gortetako Hauteskundeetan, aben-

duaren 20ko hauteskundeetan legez, Arratian alderdirik bozkatuena EAJ-PNV eta EH Bildu izan ziran. Bizkaian boto gehien

lortu duan alderdia, Elkarrekin Ahal Dugu, hirugarrena izan da gurean. Aurreko hauteskundetako hurrenkera berean jarraitu

arren, EAJ-PNVk eta EH Bilduk botoak galdu ditue (98 eta 477, hurrengo hurrengo), Elkarrekin Ahal Duguk, barriz, boto gehia-

go (360) jaso ditu. PSE-EEk eta Ciudadanos-ek behera egin dabe eta PPK, gora. Espainian PPK lortu ditu boto eta eserleku gehien.

	Errolda	Abstentzioa 2016	Abstentzioa 2015	EAJ-PNV	EAJ-PNV 2015	EH Bildu	EH Bildu 2015	Elkarrekin Ahal Dugu	Ahal Dugu 2015	PSE-EE	PSE-EE 2015	PP	PP 2015	C's	C's 2015
Arantzazu	290	51 (% 17,59)	43 (% 14,9)	94	96	90	108	47	30	2	4	1	0	2	2
Areatza	895	240 (% 26,88)	227 (% 25,2)	244	252	214	249	112	89	18	18	36	38	7	7
Artea	600	145 (% 24,17)	124 (% 20,9)	198	195	138	175	83	57	13	10	17	20	2	2
Bedia	836	218 (% 26,08)	218 (% 26,1)	306	303	86	103	132	107	31	36	37	31	7	10
Dima	1.140	310 (% 27,19)	272 (% 24)	294	304	352	408	153	105	6	8	10	7	3	3
Igorre	3.161	1.067 (% 33,76)	982 (% 30,1)	879	876	593	763	443	342	91	84	72	58	17	24
Lemoa	2.668	796 (% 29,84)	695 (% 26,1)	642	670	500	567	446	404	116	131	81	66	28	44
Ubide	136	34 (% 25)	38 (% 28,1)	27	21	51	59	18	9	2	1	3	3	1	0
Zeanuri	996	239 (% 24)	225 (% 22,4)	365	370	230	282	127	79	2	6	12	14	2	3
Zeberio	883	241 (% 27,29)	239 (% 27,1)	290	300	191	208	120	99	8	8	15	12	1	2
Guztira	11.467	3.341	2.951	3.289	3.388	2.445	2.922	1.681	1.321	289	306	284	249	70	97

LEMOA

## Eskean Kristö eta Su ta Gar taldeak animauko dabez jaietako gauak

Durundi Bari Dantza Taldeak 50 urte beteko dauz aurten eta eurek botako dabe txupina garagarriaren 29an. Ordurako jai egitaraua hasita egongo da; izan be, jaietako kirol eguna ospatuko dabe 27an eta alkartasun eguna hurrengo egunean. jaietako ikurra dan baltsen jeitsierea Ibaizabaletik, zapatuan izango da arrastiko zazpiretan. Tallerretako zubitik urtengo dira baltsa guztiak batera, eta amaieran abordajea egingo deusie alkarrerri. Baltsarik originalenak saria izango dabe. Gauak animetako sano kontzertu potenteak egongo dira. Hilaren 29an, barikuan, Eskean Kristök eta hurrengo egunean Su ta Gar rock taldeak joko dabe Lemoan.

**Erredakzioa**

**Garagarriak 27, eguaztena Kirol Eguna**

12:00etan, umeen pentatloia. Ur probak kiroldegian. 7-9 urte/ 10-12 urte/ 13-15 urte. 5 umeko taldeak osotu behar dira eta talde bakotzak bizikleta eta kasko bat eroan be-

harko dau. Izen emotea garagarriaren 18tik 22ra udaletxean.

16:30ean, 15 urtetik beherakoen Futbito Txapelketako finala kiroldegian.

17:30ean, 15 urtetik gorakoen Futbito Txapelketako finala kiroldegian.

18:30ean, Esku Pelota Txapelketako finala kiroldegian.

19:00etan, Padel eta Frontenis Txapelketako finalak kiroldegian.

19:00etatik 20:00etara, Mozorro Lehiaketan (garagarriak 29) parte hartzeako izen emotea kiroldegian. Izena kultura@lemoa.net helbide elektronikoa be emon daiteke hilaren 26ra arte.

Partiduak amaitutakoan partaideentzako kopautxo eskolan.

**Garagarriak 28, eguna Alkartasun Eguna**

20:00etan, eusko labeldun oilasko pintxo dastaketea Elizondan. Pintxoak 1,5 eurotan. Jasotako dirua "Hezurak malgu, bihotza indartsu" proiekturako izango da.

20:00etan, Beldur Barik Gunea Elizondan.

**Garagarriak 29, barikua Mozorro Eguna. Gaia: gaua.**

18:30ean, jaietako kartelen erakusketea Udaletxeko plazan.

19:00etan, txupina eta jaietako Kartel Lehiaketaren sari banake-

tea Udaletxeko plazan. Mozorro Lehiaketan parte hartuko dabenak kalejiran joango dira Elizondoraino eta bertan izango da sari banaketea. 21:00etan, kuadrilen afaria kiroldegian. 18 urtetik beherakoentzat. Txartelak hilaren 15a baino lehen udaletxean. Afari ostein zozketak.

22:00etan, disko animazioa kiroldegian.

23:30ean, kontzertua, Eskean Kristö Elizondan.

01:00etan, 12 urtetik gorako lemoaztarren Play-Back Lehiaketea Elizondan.

02:00etan, erromeria Oxabi taldeagaz Elizondan.

**Garagarriak 30, zapatua Gastronomía eta Gaupasa Eguna**

11:00etatik 13:30ak arte, umeentzako puzgarri parkea eta jokoak eskoletan.

13:30etik 14:00etara, Bits Jaia eskoletan.

13:30ean, Paella, Tortilla, Gisadu eta Makailao Lehiaketako lapikoen aurkezpena eskoletan. Ondoren, herri bazkaria.

17:00etan, umeentzako tailerrak eta jolasak, Zaztaparrak eta Alemaniara doazen gazteak alkarlanean antolatuta eskoletan.

17:00etan, Mus eta Briska Txapelketak.

19:00etan, Baltsen jeitsierea Ibaizabaletik. Urtekerea Tallerretako zubitik eta helmuga zubi barrian.

20:00etan, jantzialdia Lotxo taldeagaz Herradurako plazan.

20:30ean, Arrantza eta Ehiza alkar- tearen eskutik sardina jana Herradurako plazan.

23:00etan, kontzertuak. Anestesia eta Su ta Gar. Elizondan.

00:00etatik 03:00etara Testing zerbitzua Elizondan.

03:15ean, erromeria Trikizio talde-

gaz. Elizondan. Goizaldean, mokautxoak Elizondan. Arratiako herrietara bueltako autobusen zerbitzua 02:30ean eta 05:00etan. Urtekerea Correos-etik.

**Garagarriak 31, domekea Euskal Jaia San Inazio plazan**

Baserritar jantzita dagozanai plazan taldea eskuratzekeo txartela emongo jakie. Txartelak 13:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 20:00etara bananduko dira.

11:30ean, XIX. Artisautza Azoka Atxeta taberna ondoko plazan.

12:00etan, mezea San Inazio basilizan. Ondoren, Durundi Bari jantza taldearen 50. urteurrena dala eta, Joseba Etxebarriari omenaldia eta Lemoako Abesbatzaren ekitaldia San Inazio plazan.

18:00etan, Igel Txapelketea 17 urtetik beherakoentzat.

18:30ean, Igel Txapelketea 17 urtetik gorakoentzat.

18:30ean, Xaibor Euskalzumba San Inazio plazan.

19:30ean, 12 urtetik beherako lemoaztarren Play-Back Lehiaketea San Inazio plazan.

19:00etan, Bola Txapelketea 17 urtetik beherakoentzat San Inazio plazan.

19:30ean, Bola Txapelketea 17 urtetik gorakoentzat San Inazio plazan.

20:30ean, Aikok eskeinutako jantzaldi-erromeria Elizondan.

22:30ean, Garsu erre Elizondan. Jaien amaiera.



Jaietako artxiboko irudia.

## ARRATIA

## Menpekotasun egoeran dagozan personak jagoteko formazino zikloa eskeiniko dau Zulaibarrek



Zulaibar.

## Erredakzioa

Zulaibar Arratiako Lanbide Ikastegiak, Menpekotasun Egoeran dagozan Personak Zaintzeko Teknikari izateko Prestakuntza-zikloa antolatu dau; jarduera profesional barritzailea da hau, eta une honetan enplegueskaera handikoa. Plaza mugatuak dagoz eta garagarilaren 11tik 15era egin ahal izango da matrikulea.

Prestakuntza-planak 2.000 orduko iraupena dauka, eta ikasturte bitan bananduta dago. Horretako bigarrenean, gainera, lanpostuan bertan jasoko da prestakuntzea (380 ordu). Erdi mailako gainerako zikloetan gertatzen dan legez, De-

rri gorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduadua edota maila goragoko titulua daukienak zuzenean eukiko dabe ikasketa horreek egiteko aukera, baita Teknikari, Teknikari Laguntzaile edota parekoren bat, nahiz Batxilergo Bateratu Balioanizduna (BBB) eginda daukienak be.

Antolatzaileen ustez, formakuntza honek lanerako aukera sorta zabala eskeintzen deutse ikasketak gaintzen dabeanai. Izan be, asko dira horren bidez bete leitekezan lanpostuak: menpekotasun egoeran dagozan personen zaintzailea izatea erakunde eta/edo etxebizitzetan; menpekotasun egoeran dagozan personen gelazainburua eta gelazainburuordea izatea erakundeetan; adinekoen eta persona ezinduen egoitzetan solairuko arduradun laguntzailea izatea; etxez etxeko zaintzaileen laguntzailea; etxez etxe arreta emoteko laguntzailea; familiako langilea; hezkuntza bereziko laguntzailea; laguntzaile personala eta urruneko agindu bidezko operadorea.

## DIMA

## Uemara sartzeagaitik ipinitako salaketea erretirauta

## Erredakzioa

Carlos Urkijo, Espainiako Gobernuko Ordezkaririk, lau udalerrri salatu eta auzitara eroan ebazan Ueman sartzeagaitik; Berastegi, Ea, Zerain eta Dima, hain zuzen be. Bagilaren 14an, barriz, Dimako Udalak Estaduko abogaduaren idazkia jaso eban, epaiketean bertan behera itxiko dabela esan, eta prozedura amaitutzat emenez.

Atzen urteotan, Espainiako Gobernu Ordezkaritzek udalerrri euskaldunak aktak euskera hutsean igortzeagaitik eta euskera sustatzeko neurriak hartzeagaitik eroan izan ditu auzitara Udalerrri Euskaldunen Mankomunidadeko (Uema) zenbait udal. Salaketak EAEko Udal Legea onartu aurrekoak ziran. Baina apirilaren 15az

geroztik indarrean dagoan EAEko Udal Legeak, hizkuntza politika garatuteko eskumena emoten deutse udalari, eta Ueman sartzeako aukera legez babesten dau. Izan be, euskera sustatzeko beste erakundeak alkarlana egitea edota euskera bultzatzeko mankomunidadeak, alkarreak edo partzuergoak eratzea ahalbidetzen dau legeak. Dimako Udalak, ikusita euskerearen erabilereak behera egin dauala azken urteotan, beste gauza batzuen artean, Ueman sartzea ebatzi eban. Urkijok auzitara eroan gura izan eban Udala.

Apirilaren 15eko legea onartu eta aste batzuk pasautakoan, Espainiako Gobernu Ordezkaritzek erretiratzen hasi zan udalerrri euskaldunak Ueman sartzearen aurka jarritako salaketak, auzitara eroatea bertan behera itxiz.



Dima.

## ARRATIA

## Arratiako eskoletako irakasleak Igorren konzentrau ziran murrizketen kontra

## Erredakzioa

Bagilaren 24an, Arratiako eskola guztietako irakasleak konzentrauzino egin eben Igorren, Steilas, LAB eta ELA sindikatuak egindako deiari eskualde mailan erantzunez. Arratiakoak Bilboko Delegaritzan aurrean konzentrautakoak eskatutako gauza bardinak eskatu eutsiezan Eusko Jaurlaritzari: hezkuntza inbersinoia igoteko, langile taldeak handituteko, lanpostuak egonkortzeko eta ordezkapenak lehen egunetik egiteko, beste eskakizun batzuen artean.



Igorren konzentrazino.

## ARRATIA

## Enplegu Bulegoa, etenkako zerbitzua

## Erredakzioa

Areatzako Askatasun kalean egoan Enplegu Bulegoa zarratuta dago barriro be. Arratiako udalak eta Mankomunidadeak hori zerbitzuori beharrezkoa dala dinoe, eta Areatzako Udaleko ordezkaria, Lanbideko Lan Aktibazino zuzendariagaz bildu zan apirilaren Arratiako Enplegu Zentroaren jarraipena eskatuteko. Izan be, Europako Gizarte Funtsaren diru laguntzeagaz zabaldu zan zentroa, eta diru laguntzeak irauten dauan bitartean eskeintzen dau zerbitzua. Arratiako bulegoan, langabeak curriculuma prestatzeko laguntza eta lan arloko orientazinoia jasoten eben.

Enplegu Zentroa "AUMek zabaldu eban diru laguntza bateri esker. Datoren abendutik maiatzera arte, seguru asko egongo da barriro diru laguntza eta Lanbideko ipinten dauan personeagaz, seguru asko, ipiniko da martxan barriro" azaldu deutso BEGURRI Iñaki Barrenetxea AUMeko koordinatzaileak.

Zentroa lehenengoz inaugurau zanean, langabeentzat holango zentro bat hur eukitearen garrantzia azpimarratu eben Mankomunidadeak eta Lanbidek. Izan be, informazinoia edo formazinoia jasoteko Zornotzara joan beharrak kalte egiten deutso langabeen ekonomiari. "Eta hau ez da izango Arratiara hurreraturako dogun atzen zerbitzua" esan eban

orduan Gotzone Sagarduik.

Enplegu Bulegoak Artea urtebete egin ondoren, Areatzara pasau zan. Printzipioz sei hilabetetarako, baina ustez jarraituteko. Dana dala, sei hilabeteak be ez dauz bete; bost hilabete eta erdi egon da zabalik, bertako langileak 15 eguneko oporak hartu ebezalako. Arratiako ordezkarien arabera, nahiz eta langilea oporretan egon, enpresearen erantzukizuna da ordezkaria ipintea zerbitzua osorik emoteko.

Zerbitzua bertan behera ez geratuteko, Arratiako Udalen Mankomunidadeko koordinatzailea saiatu zan Lanbideguz negoziatzean ipinten, baina ez eban lortu. Orduan Areatzako Udalak hartu eban ekimena eta Lan Aktibazino zuzendariagaz batu zan Maitane Diez



Areatzako enplegu bulegoa.

zinegotzia. Diru laguntza horren menpe ez egoteko, Diezek apirilaren planteau eutsan ea modurik egoan "Lanbidek daukan beste baliabide, ekimen edo programen bitartez Enplegu Bulegoa zabalik mantentuteko". Sagarduik aztertuko ebalu agindu eutsan.

Arratiako udalak, Mankomunidadearen bitartez, Enplegu Bulegoa zerbitzua emoten jarraitu dagian baliabideak ipinteko prest dagozala dino Areatzako zinegotziak.

## Bigarren zarratuta

2014ko zemendian Arratiako Udalen Mankomunidadeak eta Lanbidek Arratia eskualdeko lehenengo Enplegu Zentroa ipini eben martxan Arteko Kultur Etxean. Hasikera baten barikuetan bakarrik egoan zabalik baina martian martitzenetan be zabalduen hasi zan. Lehenengo hiru hilabeteetan 77 personak erabili eben zerbitzua, AUMen datuen arabera.

2015eko zemendian barriz, zerbitzua bertan behera geratu zan, Arteko lokalean komunitaria sartzeako egoan irisgarritasun arazoak zala-eta.

Abenduaren 23an Arratiako Enplegu Zentroak Areatzan zabaldu ebazan ateak barriro. Astelehen eta eguaztenetan eskeintzen zan zerbitzua Askatasun kaleko lokalean, eta urtailaren 15etik aurrera, barikuetan, Zulaibar Lanbide ikastetxean be bai.

Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gibusua  
Begiko tentsinoia  
Lentillen adaptazinoia  
Kiroletarako betaurrekoak

Olaxte

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
94 657 70 03 - olaxteoptika@hotmail.es

ASESORIA  
**Gorbeialde**

Juridika · Fiskala · Lanbide · Kontularitza

Askatasun 28, 1B 48143 Areatza  
Tfn. 94 673 92 93 Fax. 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

## ARRATIA

# Larregi eta Akerbeltz taldeak joko dabe Igorreko sankristobaletan

### Erredakzioa

Garagarrilean, auzuneetan eta ermita inguru askotako jaiak izaten dira. Batzuek egitarau xumea izango dabe, trikitixea eta barauskarria baino ez, beste batzuetan egitarau potoloagoa prestatuko dabe, baina dan-danetan jaigiro ederra egongo da duda barik. Honetan, herri bazkariak, lehiaketa gastronomikoak, kontzertuak eta erromeriak izango dira nagusi.

Hileon, santomasak, sankristobalak, santamañeak, San Segismundo, madalenak, santiagoak, santanak eta saninazioak ospatuten dira.

Garagarriaren 2an Areatzan santomasak ospatuko dabez, 19:00etan mezea egongo da eta ostean parrilladea, hurrengo jaiak sankristobalak dira hilaren 10ean.

### San Kristobal (Igorre) Garagarriak 8, barikua

**20:45**ean txupina. Akerbeltzeko Guruzneren eskutik.

**21:00**etan, parrilladea eta ondoren musikea zuzenean: El Negro Felito eta Iñagariak (rantxerak, habanerak...).

### Garagarriak 9, zapatua

**11:00**etan, Arratiako Rallyaren urtekerea.

**13:45**ean, Rallyan parte hartu daben kotxeen erakustaldia plazan eta garagardo dastaketea.

**14:00**etan, Rallykoen bazkaria.

**17:00**etan, Rallyaren atzenengo pasoa plazatik.

**17:30**ean, Tortilla eta Makailao Lehiaketetan izen emotea.

**18:30**ean, Ibon Magoa.

**20:30**ean, tortillak aurkeztu.

**21:00**etan, makailaoa aurkeztu.

**23:00**etan, kontzertua: Larregi eta ondoren erromeria Akerbeltz taldeagaz.

### Garagarriak 10, domekea

**12:00**etan, mezea.

**13:00**etan, aizkolariak: Mendieta, Intxausti eta Utxu.

**14:00**etan, Igel Txapelketea.

**15:00**etan, Igeriketa Txapelketea Santa Lutziko iturrian.

Hilaren erdikaldean, Santa Marina, San Segismundo eta Madalenak daukaguz. Santa Marina edo santamañe eguna, hilaren 18an da eta Artean eta Dimako Bargondian ospatuten da. Lemoako Tallerreta eta Lemorietako jaiak hilaren 16an izango dira aurten. San Segismundo Zeberiko Upon ospatuten dabe. Madalenak garagarriaren 22an dira eta Dimako Lamindaon eta Ubiden ospatuko ditue.

### Tallerreta eta Lemorietako jaiak (Lemoa)

#### Garagarriak 16, zapatua

**12:00**etan, txupina eta kalejireia Atutxen.

**14:30**ean, bazkaria: oilaskoa eta auzoko Piper eta Tomate Lehiaketea.

Bazkalostean jolasak.

**19:00**etan tortillen aurkezpena.

**20:00**etan, kontzertuak.

### Santamañe jaiak (Artea)

#### Garagarriak 16, zapatua

**09:00**etan, kalejireia txistulariakaz.

**11:30**ean, mezea.

**12:00**etan, Arteako produktuen azokea.

**13:00**etan, pintxo eta edariak.

**14:00**etan, Munduko Arrozak Txapelketako saria.

**18:00**etan, talde jolasak (petankea, igela...) eta umeentzako saskia (pelotea, gomea...).

Garagarriaren amaieran, Santiago eta San Inazio jaiak dira. Hilaren 25ean Santiago, eta 31n San Inazio, jai handiak dira biak. Santiago Artean, Diman eta Zeanuriko Ipiñaburrun ospatuko dabe. Baita Lemoako Arrañon be, mezea eta barauskarriagaz.

San Inazio egunean, barriz, ohiturea dago Gorbeiaiko kurutzera igoteko. Bizkai osoko jaia da eta Bizkai osotik etorten dira mendizaleak Gorbeia igoteko. Egun honetan, kotxe kopurua murrizteko, autobus zerbitzua egoten da Areatzatik Pagomakurreraino.

### Ipiñaburuko jaiak (Zeanuri)

#### Garagarriak 23, zapatua

**14:00**etan, Auzo Kantu Bazkaria Jon Enbeitaren otxoteak animauta. Ondoren, Briska eta Mus Txapelketak.

**19:30**ean, txokolata.

### Garagarriak 25, astelehena

**11:30**ean, meza nagusia. Ondoren barauskarria eta Bola jokoa (Zeanuriko Kofradi Bola Txapelketarako puntuagarria).

### Garagarriak 26, martitzena

**12:00**etan arimen mezea eta ondoren barauskarria.

### Santiagoko jaiak (Artea)

#### Garagarriak 25, astelehena

**09:00**etan kalejireia txistulariakaz.

**11:30**ean, mezea.

**12:00**etan, Arteako produktuen azokea.

**13:00**etan, pintxo eta edariak.

**14:00**etan, Marmitako Txapelketako saria.

**18:00**etan, erromeria.

## ARTEA

# Iberdrola itxi eta Goieneregaz egin dauz hainbat kontratu Arteak



Arteako Kultur Etxea.

### Erredakzioa

Arteako Udala, eredu energetikoa aldatuteko helburuagaz, energia barriztagarriakaz lan egiten hasi da eta orain, eskola, Kultur Etxe eta frontoiko argindarra, Goier energia barriztagarrien kooperatibek hornituen dau. Udalaren helburua Arteak Iberdrolagaz daukazan 30 kontratu baino gehiago itxi, eta energia barriztagarriakaz lan

egiten daben enpresakaz kontratua egitea da.

Hainbat enpresa aztertu ondoren, Goienarren aldeko apustua egin ebela azaldu deutso BEGITURI losu Murgia Aldatuz Herri Plataformako zinegotziak. "Hori egiteko eta legea betetzeko, zatika hasi gara. Ez dogu lizitaziorik egin, egin doguna izan da gitxieneko zerbitzu moduan, 18.000 euro baino gitxiagoko kontratua".

Eraikuntza sozialetatik hasi dirala dino, gero besteetara pasetako. "Gure idea da hemendik aurrera apurka-apurka, kontratuak energia barriztagarriagaz lan egiten daben enpresakaz egitea. Ez dakigu gitxieneko zerbitzu moduan edo lizitazio moduan egingo dogun, baina legea beteta egingo dogula bai. Energia barriztagarriak eta beste erispide batzuk beteten dituen enpresakaz egingo doguz kontratuok. Kasu honetan Goier kooperatibegaz izan da".

### Goier

Bere webgunean emondako datuen arabera, Goier kooperatibea 4.655 bazkidek osotuten dabe eta 4.924 kontratu daukaz. Energia berdea erosi eta sortu egiten dau kooperatibek, energiaren sorkuntzea eta merkaturatzea liberalizata dagoz-eta. Baina garratua eta banaketea (goi-tensino, tensino ertain eta behe-tensinoko azpiegiturak) ondino konpainia handien kontrolpean dagoz eta holan erregulata dago.

Etekin asmorik bako kooperatibea da. Horregaitik elektrizitate berdea merkaturatuz lortutako etekinak, kooperatibara itzuli, eta bazkideak ebazten dabe batzarretan zertara bideratu diruok.

Sortutako energia kopurua eta bazkideak konsumidutakoa, kopuru bardina izaten saiatzen da Goier.

## LEMOA

# 1.200 kantari batu ziran Elizondon Bizkaiko Abesbatzen Egunean



### Erredakzioa

Bizkaiko XXXIII. Abesbatzen Eguna Lemoan ospatu zan. Bertan, 50 abesbatzetako 1.200 kantari batu ziran. Umeak osotutako 4 abesbatz, helduen abots zuriko 9 koru, abots bajuko 7 koru eta abots mistoko beste 30ek kantau eben

Elizondon aire librean. Ondoren, korukoak alkarregaz bazkaldu eben kiroldegian. Datorren urtean, Bilbok antolatuko dau Abesbatzen Eguna.

Euskal Herrian koru gehien batzean dauzan aire libreko kontzertua da Bizkaiko Abesbatzen Eguna

eta jenteari koru musikea ezetuten emotea eta abesbatzetako giro ona transmitidutea dauka helburu. Izan be, hainbeste jente batera kantetan aire librean sano gitxitan ikusi daiteken ikuskizuna da.

### Kontzertua

Lemoako kontzertuan 17 kantau ebezan abesbatzok. Umeen abesbatzak, "Lau Euskal Abesti", Kongoko kantu herrikoi bat eta "Fruit Canon" eskeini eutsiezan publikoari; Abots bajuko koruak "Goizeko izarra", "Barrenkalle", "Beti eskamak kentzen" eta "Festara"; helduen abots zuriko koruak "Maritxu nora zoaz?" "Sin ti" "Ixil ixilik" eta "Eperarena"; abots mistoak "Maitia nun zira", "Kantuz", "Saratarra" eta "Mendirik mendi". Azkenik, kontzertua amaituteko koru guztiak batera Txanton Piperri Operako amaierako ereserkia eta "Agur Jaunak" kantau ebezan.

Lemoako Udalak sano egun polita izan zala adierazo dau.

## DURUNDI BARRI JANTZA TALDEA. 50 URTE

# Durundi Barri, mende erdia jantzan

1966ko San Inazio egunean Lemoan, herriko talde batek zortzikoa dantzatu eban. Haxe izan zan, Durundi Barri Dantza Taldearen lehenengo erakustaldia. 50 urte eta ehundaka emonaldi beranduago, taldeak bizirik dirau eta Lemoak bere lana errekonozidu gura deutso. Hori dala-eta, Durundi Barri Dantza Taldeak emongo deutse hasikerea herriko jaiai txupina botaz, eta San Inazio egunean, Joseba Etxebarria taldearen sortzaileetakoari omenaldia egingo deutso Lemoak.

**Erredakzinoa**

Durundi Barriren 50. urteurren jaia urri bigarrenaren 1ean izango da. "Urteurrena San Inazio egunean da, baina egun horretan gauza asko dagozanez ospakizuna atzeratu egingo dogu lasaiago egoteko. Urri bigarrenaren 1ean belaualdi guztietako jentek egingo dau jantzan. Ensaioak egiten gabiz daborduko. Jantzan egin, bazkaria eta jantzaldia egongo dira egun horretan" di-noe antolakuntzakoak. Bazkaria herri guztiari zabalik egongo da eta ez da beharrezkoa Durundi Barrikoa izatea bertan parte hartzeako. Aurreko astean, jantza jantzien, antxinako argazkien eta musika tresnen erakusketak egingo ditue.

Jantza taldean gaur egun 25 ume eta gazte dagoz eta helduentzako ikastaroak be antolatuten ditue. Batez be Bizkaia,

Gipuzkoa eta Arabako euskal jantza tradizionalak osotuten dabe errepertorioa eta Bizkaiko Dantzari Egunean eta, besteak beste, Basauri, Usansolo eta Arri-gorriagako alardeetan hartzean dau parte Durundi Barri. Janire Undurraga eta Maite Azkuenaga dira umeai jantzan erakusten deutesenak eta jente gitxi egon arren, aurrera egiteko asmoagaz jarraituten dabe.

**Lehenengo pausuak**

Arrasaten ikasle zala, euki eban Joseba Etxebarria Lemoan jantza talde bat sortzeako idea. "Honen aurretik Arrasaten sortu genduan beste talde bat. Han, ezetu neban Kike, nire laguna, eta Kike eta biok arduratu ginan hango taldea aterateaz. Arrasatekoari Lore Gazteak izena ipini geuntsan. Jantzan hasi ginanean, Lemoara etorri nintzan eta taldea sortu neban. Lemoako taldeari



izena ipini behar jakon eta ze izen ipini eta Durundi Barri ipini geuntsan, trumoi barria, soinu barria. Horregaitik daukaz lainoa eta tximista logoan".

Joseba Etxebarria hainbat lagunegaz batera ipini eban mar-tan taldea eta bertan egon zan ezkondu eta Venezuelara joan arte. Hasikera hareetan, Franco-ren sasoiaren, jentearen laguntzeari esker konponduten ziran problema guztiak. Eta ez ziran gitxi.

1966ko saninazioetan lehenengoz jantza egin ebenean, 8-10 bat mutil eta beste horrenbeste neska ziran Durundi Barrin. Txistularia Moises Azkuenaga zan Joseba Etxebarriaren laguna, baina ez zanez Lemoakoa eta konpromiso asko eukazanez, ezin zan beti etorri. Arrasate eta Zumaiako txistulariai be deitzean eutsen Etxebarria jaialdietara

etorteko baina ez zan konponbi-dea. "Eta orduan zer egin neban? Ba neuk ikasi. Txistua jo eta jo ibili nintzan Lemoa aspertu arte, eta neu izan nintzan taldeko txistularia. Hori 18 urtegez edo izan zan" dino Etxebarria.

Entseguak Fletxa tailer zaharrean egiten ebezan. Gero Koralarren lokalera pasau ziran. Banderea Joseba Etxebarriaren izeko Lorek bordau eban. Alfaron monja egoan izeko Lore, eta ordainetan han jantzan egitea eskatu eban. "Autobusean joan ginan hara eta eroan nebazan 8 mutil eta 10 neska eta ni txistulari, iada txistua joten ikasita nengoan eta. Zahagi jantza egin behar zan. Eta ez nintzan konturatu, 8 jantzari eta zahagia eroaten ebana behar zirala. Eta nik txistua jo eta jantzan ezin neban egin. Orduan zer egin? Ba, han eleizearen aurrean







egozan eskaileretan ipini neban neskak musikea kantetan, eta nik jantzan egin neban" ekarri dau gogora Etxebarriak.

Korpino guztiak Mila Aranak, Etxebarriaren koinateak, egin ebazala dino. Aitak makilak eta ezpatak egin ebazan, amak josi egiten eban. Umeen gurasoak ez ebela inoz kejarik izan erropak egin behar ziralako eta amak eta amamak egiten ebezan jostun lanak. Erropak egiteko fieltroak eta dindirriak Bilbon erosten ebezan Durundi Barrikoak. Horreek pagetako dirua Santa Ageda egunean kantetan edo antzerkia egiten lortzean eban.

Banderak ziralako eta, arazotxo bat be euki eban behin. "Hor arazoa, Llona Lemoako alkateagaz izan genduan. Alkateak esan eustan gure banderearen puntan Espainiako banderearen lazoak ipini behar genduzala. 1967 urtea-edo izango zan. Nik ezetz esan neutsan, hori ezetz. Eta berak esaten eustan Euskadiko banderea geroiala. Eta nik: Non? Eta berak: dindirrietan. Nik: ez, guk dindirrietan gorria, berdea eta zidar kolorea daroaguz. Dis-

kusino izugarria izan genduan eta azkenean esan neutsan, orduan ez bata eta ez bestea. Eta dindirri barik egin genduan jantzan".

Joseba Etxebarria 22 urtegeaz ezkondu eta Venezuelara joan zan 5 urterako. Hemen Jose Mari Barragan eta beste batzuk geratu ziran taldearen arduradun legez.

#### 1980-90 hamarkadetako loraldia

Durundi Barri taldeak jente asko pasau da. Akaso, urte gehien egin dauana Jose Mari Oyarzabal da; izan be 48 edo 49 urte egin dauz taldean. Umetan sartu zan taldean, hamar urte inguruko mutikoa zan orduan eta 1974-75 inguruan hasi zan ardurak hartzean.

Oyarzabalen ustez, taldeak nahiko eboluzino polita izan dau. 1980ko hamarkadan erakustaldiak Europan zehar egiten ibili ziran "1985ean Bulgariara joan ginan. Taldeak kalidade handia eukan. Ensaio asko egiten genduzan, astean bitan edo hirutan gitxienez". Lehenengo urtekera Zeanurikoakaz Makeara izan zala dino Oyarzabalek, eta orduan

hasi ziralako Iparraldera eta hainbat lekutara joaten.

Bulgariarako biajeak ilusino handia sortu eban taldean. Hango jantzak ikasi eta hemengoak irakatsi ebezan. Handik hiru urtera, Austriara joan ziran. 1980ko hamarkadan, hiru nazinoarteko jaialdi be antolatu ebezan Durundi Barri taldekoak. Jugoslavia, Israel, Senegal eta mundu guztiko jantzariak etorri ziran orduan Lemoara. Atzerrira joateko dirua bazeako txosna bat ipini eban jaietan. "Behar asko egin genduan eta herria gugaz egon zan, ze gure txosnea beti beteta egoten zan".

Bizkaiko Dantzarien Biltzarreko presidente be bada Jose Mari Oyarzabal Durundi Barriko presidentea. Bizkaiko Dantzarien Biltzarrean dagozan jantza taldeak urtero antolatuten dabe Bizkaiko Dantzari Eguna eta 1995ean Lemoako taldeak antolatu eban. Orduan 72 jantza talde batu ziran. "Sano ondo urten zan eta gure sekretua herriko alkarte guztiakaz kontetea izan zan". Arratiako jantza taldeak be egon ziran han eta Arratiako taldeakaz hartu-emonak beti onak izan dirala dino Oyarzabalek. Baita Arratia-Nerbioi eskualdeko taldeakaz be.

Durundi Barri jantza taldea aurrera aterateko familia osoak inplikatu izan dira eta Oyarzabalen familia ez da salbuespena izan. Lehenengotik gurasoak, ezkondukakoan "andrea beti egon da nigaz. Gero semea jantzari izan da eta gaiteru...".

Holan, eta jente askoren lanari esker, Durundi Barri, jantza tradizionala egiten jarraituten dau. Beti iturrietara joz. Jantzaren jatorrizko herriko jantza taldeagaz kontaktuan ipinten dira euren-gandik ikasteko. Holan Larrain jantza ikasi ebenean barbarako, Lizarrako taldeagaz egon ziran eurekaz ensaietan, eurek egiten daben moduan egiteko eta holan mantenduteko.

Bizitzan momentu hobeak eta txarragoak dagoz eta oraingo momentua ez ei da onena, jente gitxi dagoalako taldean, baina Oyarzabalek ilusinoz beteta jarraituten dauala dino. Denporak eta ohiturak aldatu egiten dira eta gauzak asko aldatu dira mende erdian, baina gazte talde batek saniazioetan zortziko bat dantzatu eban, eta 50 urte beranduago, bizirik jarraituten dau Durundi Barri jantza taldeak.



OPEL  
Ibaigane, S. Coop. Ltda.  
Estazioa, 15  
48330 LERIOA (Bizkaia)  
Telf. 631 33 30 - 631 31 31  
Fax 631 30 15

belagorri  
mediku naturista  
argaltzeko terapia  
kosmetika naturala  
elikagai biologikoak  
zelakoenitzat elikagaia  
estetiziana  
Zamakoia, 9 - 48960 Galdakao  
94 600 21 12 - 94 600 87 56  
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre  
94 631 14 39

agoa  
hagin klinika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Odontologia  
Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
Bidebarri 1, behea  
48140 Igorre-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kilgata Zerbitzu 100  
R.P.S. 3/06

Abel Lapatza Iza  
Taxi zerbitzua 24 ordu  
Dima  
946 317 252  
608 287 249

## HERRI KIROLAK

Udan azkora eta trontza erakustaldiak  
astero izaten ditu Irati Astondoak

Esti Olibares eta Irati Astondoa trontzan entrenetan.

## Erredakzinoa

Aprilean hasi eta urrietara arte, herri kirol erakustaldien sasoia da. Zapatu-domekero, Euskal Herri osoko herri edo auzuneetako ehundaka jaietan ibiltzen dira herri kirolariak emonaldiak egiten. Arratian asko dira azkora, sega, trontza, lasto altxatzen, ingudea altxatzen, sokatiran eta beste herri kirolerako erakustaldiak egiten dabezanak. Batzuk puntako kirolariak dira eta markak egin eta medio handietan agertuko dira uda honetan be: Aitzol Atutxa eta

Jose Martin Bustinza "Tubi", berbarako. Beste batzuen esfortzuak ez dabez beti markak apurtzen, baina herri kirola bizirik mantenduten, gaztetzen eta zaletasuna sortzean lagunduten dabe.

Irati Astondoa zeanuriztarra espezialista da ea galduta dagozan, edo andrazkoak egin ez dabezan kiroltan fokoa ipinten. Sega, azkorea, trontzea, giza-probak... danetik egiten dau arriarrak eta aprilean hasi eta urriak amaitu arte astegoienero eukiten dauz erakustaldiak. Herri kirol erakustaldiak egiten dabezan neska ge-

hienak Gipuzkoakoak dira, baina askorik be ez, dana dala. "Euskal Herriko herri gehienetan ibiltzen gara. Askotan tokau jaku bi edo hiru erakustaldi egitea egun be-rean. Gehienak Gipuzkoan izaten dira, han dagoalako afizinerik handiena, baina Nerbioi ibaiko itsasadarraren ezker aldean be asko egiten doguz" azaldu deustu Irati Astondoak BEGITURI.

## Azkorea, trontzea, sega

Aurten, batez be, azkora dabil zeanuriztarra. Berak ipini eban lehenengo marka eta hori hobetuteko entrenetan dabil. "Plaza gehienetan hiru enbor moztu eta gero trontza egiten dot". Trontza Esti Olibares igorretarragaz entrenetan dau Astondoak, eta ondo preparauta, beragaz txapelketaren baten parte hartzea gustauko litxakiola dino. Urrietan, Euskal Herriko Trontza Txapelketa Mistoan Andoni Urrutiagaz aurkeztuteko asmoa dauka. Txapelketa honetako finalurrekoa urri lehenengoaren 24an izango da, eta finala urri bigarrenaren 12an.

Sega aurten ez dauala askorik egin dino kirolariak. "Motibazio falta daukat. Igazko apustua galdu eta gero, oraindino asko ikasi beharra daukadala ikusi dot".

## MENDI MARTXEA

Ibilbide bi Arteako auzuneetatik  
zeharreko martxan

## Erredakzinoa

Arteako Auzorik Auzo mendi martxan ibilbide bi dagoz aukeran: luzeak 32 km. eta 1.400 m.ko desnibela dauka eta laburrak 18 km. eta 800 m.ko desnibela. Garagarilaren 3an izango da, goizeko 08:30ean urtenda. Mendi martxa honek hogeitau urte beteko ditu aurten.

Martxa honen helburua, eze-lango lehiaketa giro barik Arteako auzuneak eta bide zaharrak ezetuten emotea da. Aurten be, azken urteotan izan dan mo-

duan, Arteako Kirol Kultur eta Euskera Taldeak (AKKT) antolatatu dau mendi martxea udalaren laguntzeagaz.

## Ibilbidea

Ibiltariak Aretatik urten eta Mandoiara igongo dira. Handik Leitokira eta Murgako tontorrera. Lauretan indarrak berreskuratu ostean, Pikobikotx igon eta gero beherantza egingo dabe partaideak. Gogorik eta indarrak euki ezkeru, Upora igoteko aukerea be egongo da. Ibilaldia plazan amaituko da.

2016-UZTAILAK-3

**ARTEAKO**

**XX AUZORIK-AUZO**

Luzea 32 km (08:30 plazan)  
Laburre 18 km (09:00 plazan)  
Desnibela: Laburrek 800m eta Luzeak 1400

Prezioa: 5€ (bazkideak 3€)

LAGUNTZAILA

**Beer & Edariak s.l.**

HEINEKEN SOLARES

Polig. Mendaketa, 3 48530 LEZAMA, Bizkaiak  
Tel: 609 482 830 / 609 090 717

**ZEKUTZE**

JATETXEA

Sabino Arana, 24  
48140 IKZORRE - Bizkaiak  
Tel: 94 631 52 83  
zikutzejatetxea@hotmail.com

**AKESOLO, S.A.**

GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK

Carbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IKORRE-BIZKAI

**Orre**

FOTOKOPIAK - PAPERBENDA

L. Agirre, 1.  
48140 Ijorri (Bizkaiak) Telefonoa: 94 673 61 75

**NAIARA HORTZ KLINIKA**

Lehendakari Agirre, 19  
48140 Ijorri  
94 631 52 26

**Arratia**  
Ibide eta zeberrioko  
**euskerea**  
eta kulturearen alde

**Egin zaitez zeu be** **Degitu-lagun**

Hamabostero  
Degitu zeure etxean

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ateralako produktiak.

Hamabostean behin sari itzelen zozketan parte hartuko dozu.

Zertu Kultur Elkarteak  
Berrao Plaza 27. 48112 Arratia

Izen-abizenak:  
Ibilbidea:  
Herria:  
Telefonoa:  
E-posta:  
Urteko kuota aukeratu: 35€ 55€ 75€

**begitu**  
mutila utzi behar

## FUTBOLA

# Manex Sagarna igorreztarra izan da Athleticen entrenatzailea

### Illart Gumuzio

Liga irabazi dauan Athleticen nesken taldean emon dau denporaldia Manex Sagarna igorreztarra atezainen entrenatzaile bezala. Lehen urtea izan da berarentzat bai andrazkoen futbolean eta bai goi mailan eta bere esanetan "orain arte bizi dodanagaz igartzen da aldea. Hiru urte egon naz Bigarren B mailan eta beste urte bi Eibarren, hango harrobian. Aurten, masa sozialean eta baita mailan be, aupadatxo bat gehiago igarri dot". Urte hasikerako helburuak dirala-eta, "egia da aurreko denporaldietan zeozer lortzeako atarian geratu dala taldea. Kopako final bi galdu ditu azken 3-4 urteetan eta ligan be bigarren postu asko eskuratu ditu. Hasike-

ratik lehiatu gura ebala eskatu eban entrenatzaileak eta lehiatzearen ondorioz, goian ikusi gara eta urte osoa egin dogu lehenengo postuan. Azkenean, titulu bat egaz berretsi dogu denporaldia" esan deutso BEGITURI.

Ligako bigarren postuan Bartzelonako taldea geratu da, "Bartzelona potentzia bat da futbolean, guztiz profesionalizatu da. Eurak, goizez entrenau, bertan bazkaldu eta entrenamentu dobleak be izaten ditue. Gure kasuan, jokariak arrastiz entreteteaz gainera, lan egin edo ikasi egin behar dabe. Nire eretxian, neska futbolariak egin dabenari meritua emon behar jako, egin dabena sano gatxa da eta". Athleticen denporaldi onaren giltza zein dan galdetuta, taldearen

garrantzia aitatu dau zalantza bari Sagarnak, "banan-banan, Bartzelona eta Atletico de Madridek kalidade handiagoa daukie, baina gure taldeak hobeto funtzionetan dau eta jakin dogu hori txapeldun izateko bideratzen".

### Titulu ospakizunak

Ospakizunai jagokienean "fenomeno. Ez daukat berbarik bizi izan genduan guztia azaltzeko. Autobusean sartu ginan lehen momentutik eta basilikara sartu ginan momentutik... buff, espektakularra! Nik neuk bizi izan dodan momenturik eta gozoena dala uste dot" azaldu dau.

Jai giro horretan, Bilboko udalderetako balkoian be ikusi genduan Sagarna mikrofonoa eskuan eta bertso kantari, "jokariakaz afa-



Manex Sagarna.

ri baten ondorioz neukan zorra zan. Kapitainakaz berba egin eta balkoian gengoza Iraia Iturregik mikrofonoa hurreratu eustan. Ateznean, momentuan lar pentsau bari aurrera egiten dozu, bertsoa urten zan eta punto". Amaitzeko, "eskerrak emon behar jakoz Athleticen zuzendaritzari

talde teknikoaren alde egindako apustuagaitik eta apurka-apurka andrazkoen taldean emoten dabilan pausoengaitik. Asier Etxezarraga "Txata", Oier Amorrosta eta Zigor Antxiari be eskerrak emon gura deutesdaz honetan hasteko aukera emon eustelako Arratia futbol taldean".

## RALLYA

# Arratiako III. Rallya eta auto erakustaldia

### Erredakzioa

Arratiako Auto Klasikoen Rallyaren hirugarren edizioa garagarriaren 9an izango da, Igorreko San Kristobal jai egitaruaren barruan. Bertan 25 urtetik gorako autoak hartuko dabe parte. Autoen erakustaldia be egongo da San Kristobaleko plazan, 13:45etik aurrera, pilotuak bazkaldu bitartean.

Goizeko 10:00etan Lemoan

harrerea egin eta bertatik urtengo dira partaideak 11:00etan. Goizean bost ibilbide egongo dira eta gero San Kristobalen batuko dira bazkaltzeko. Arrastian, barriz, beste lau urtekera egongo dira.

### Ordutegia

Honako ordutegi hau izango dau rallyak. 10:00etatik 11:00etara, harrerea eta urtekera Elizondoko parkinetik; 11:15ean urtekera, San Kristobalek Lamindaora;

11:40ean, Areatatik Pagomakurrera; 12:30ean, Muruetatik Bikotzganera; 13:20ean, San Kristobalek Lamindaora; 13:45etik 15:00etara, batu eta San Kristobalek urten; 15:15ean, Boroatik Larrea; 15:30ean, Urritxetik Lauaxetara; 16:15ean, Uribetik urten, Zeanuri, Lamindao eta San Kristobalera; 17:20tik 19:00etara, Areatan batu, Zeanuri, Artea eta Arantzazura. Rallya 20:00etan amaituko da.



ARA OTZ  
Lunduen 0 Jabeak  
www.araotz.com

[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

publizitatea  
94 631 73 14 eta 649 979 115

begitu  
arratia ubide zerbeto

RUGBY  
TABERNA  
Egin zaitez bazkide!  
09:30etik zabalik  
Asteburetan pintxo bereziak  
arratiako.zekorrak@gmail.com  
http://santxisme.blogspot.com/

Bizkaifisios SLk  
bi zentro dituzte  
Fisioterapia Zentroa Igorre  
Elexalde 4  
Telefonoa 94 631 55 08  
Andra Mari Klinika  
Fisioterapia Zentroa  
Pontzi Zabala 1, Galdakao  
Tel/faxa 94 457 23 64

Kili-Kili  
Umeen denda  
94 673 63 51  
Agire Lehendakaria 10  
Igorre  
kikiligorre@gmail.com

BICIS BIZI  
Arratiarron denda  
JESUS CANAS TARAVILLO  
Tel. 94 630 92 20  
jscanas@movistar.es  
Gregorio Mendibil kalea, 12

## KARTEL LEHIAKETE

## Areatzako jaietako Kartel Lehiaketea martxan da

## Erredakzioa

Areatzako Jai Batzordeak Jaietako Kartel Lehiaketea antolatu dau. Proiektuak garagarilaren 15era arte aurkeztu daitezke. Kartel irabazleak iragarriko dauz Areatzako jaiak eta jai egitarauaren liburuxkan be argitaratuko da. Saria 150 eurokoa da.

Kartelak 60/40 cm formatuan aurkeztu behar dira. Edozein teknika erabili daiteke baina derrigorrez agertu behar da hurrengo testua: Areatzako jaiak 2016 Abuztuaren 23tik 30era. Kartelak formatu digitalean eta A4 papelean aurkeztuko dira.

Ebatzia hilaren 18an emongo dau jakitera Jai Batzordeak.

## JANTZAK

## Igor Eubari omenaldia Igorreko Aurreku Txapelketan

## Erredakzioa

Igorreko XV. Aurreku Txapelketea garagarilaren 2an jokatu da arrastiko seiretan Kultur Etxean, Igorreko Udalak antolatuta. Hamar aurrekularik hartuko dabe parte: zazpi mutil eta hiru neskek. Bizkaiko herri askotatik datoz jantzariak baina aurten ez da arratiarrik egongo txapelaren lehian.

Aurten igaz hildako Igor Eubarren omenez egingo da Igorreko

Aurreku Txapelketea. Igor Euba, Leioako jantzaria, minbiziak jota hil zan 2015eko urri bigarrenean, 34 urte ebazala. Euskal Herriko Jantza Solteko Txapelketetan zein aurreku txapelketetan hartzean eban parte. Julen Bilbao Igorreko aurrekulariaren arabera, Euba sano ezaguna zan aurreku txapelketen munduan. "Erlazino ona eta polita geunkan eta omenaldia merezidu daua ebatzi dogu" azaldu dau Bilboak.

## JANTZAK

## Folklore Bizian Jaialdia Areatzan

## Erredakzioa

Jaialdia garagarilaren 25ean izango da herriko plazan. Han nazinoarteko jantza taldeak jantza emonaldiak egingo dabez, kultura desbardineta jantzak ezetuten emoteko. Galdakaoko Andra Mari jantza taldea, Irlandako Ensemble Folklorique Absolutely Legless Dance Company eta Brasilgo Ensemble Folklorique Ballet de Amazonia izango dira Areatzan.

Areatza Lantzen aldizkariko informazioaren arabera, Folklore Bizian Jaialdia Galdakaoko Andra Mari Dantza Taldearen ekimenaz ipini da martxan. "Taldea Areatzako Udalagaz jarri zan harremanetan, jaialdi honen barri emoteko. Jaialdiak atzerriko jantza taldeen emonaldiak ikusteko eta ezetuteko aukera emoten dauenez, proiektu aberasgarria eta interesgarria iruditu jakon Udalarri".

Brasilgo konpainiaren jantzak, Amazonia irudikatuko dabe kolore askotako luma eta gerra jantzen



Irlandako Ensemble Folklorique Absolutely Legless Dance Company taldekoak.

bidez. Euren jantzetan, Afrikako erritmoak eta Portugalgo jantzen eragina be ikusi daiteke.

Irlandatik, barriz, doinu zeltiarrek eta klake jantzak ekarriko dabez biolin, txirula eta gitarrez lagunduta.

## EUSKERE

## Iñigo Errasti: "Dimak herri euskalduna izaten jarraitu daiala gura dogu"

## Erredakzioa

Diman, euskerearen erabilearen beherakadaz kezkatuta, herritar batzuk Abizarie izeneko euskera alkartea sortu eben urte hasieran. Iñigo Errasti Aranburu taldekoagaz egon da BEGITU, alkartearen nondik norakoak jakiteko.

**Zergaitik sortu dozue Abizarie alkartea? Ze helburugaz? Lehen ez egoan Diman euskera talderik?**

Herritar talde bat kezkatuta gagoz euskereak Diman aspaldion atzerantza egin dualako. Euskerearen erabilearen gainean egindako azkeneko ikerketak holan dala baieztatu dabe. Oraintsu arte, euskerea izan da nagusi herriko kale eta auzoetan, baina, ondino halan bada be, gero eta gehiago entzuten da erderea. Egia da herria asko aldatu dala azken urteotan, baina gutako batzuei nabarmena eta kezagarria irudituten jaku, esate baterako, ume txikiak be sarri erderaz berbetan entzutea.

Dana dala, hori kontuori umeen

arlotik harago doa gure ustez: erderea leku eta egoera askotan entzuten dogu herrian. Herritar guztioi jagokun gauza bat da. Inor baztertzeko asmo barik, Dimak herri euskalduna izaten jarraitu daiala gura dogu, eta uste dogu ointxe dala momentua euskerearen beherako joera hori aldatzeko, beste herri batzuetan lehenago pasau dana guri pasau ez dakigun.

Abizarie alkartea Diman euskerea indartutea beste asmorik ez dauka. Euskeraz badakienak goian aiatu dogun egoerearen kontzientzia hartzea eta, horren ondorioz, batez be euskeraz berba egitea (beste hizkuntza baten beharrik ez dagoanean). Eta euskeraz ez dakienak, non bizi diran kontuan hartuta, euskeraz berbetan ikasteko eta euskeraz berba egiteko asmoa hartzea, holan euren gogoz bat egiteko euren herriko hizkuntzeagaz.

**Zenbat jentek osotuten dau alkartea?**

Hamabost bat lagun gara, eta daretariko jentea dago gure artean: gazteak eta zaharragoak, herrian jaiok eta kanpotik etorriak, ge-

nero eta pentsakera askotakoak. Danak alkarlanaren aldekoak, independenteak eta irekiak.

**Zeintzuk dira alkartearen lan ildoak eta proiektuak?**

Hiru lan-ildo antolatu doguz orain arte: Sensibilizazioa, Hizkuntzapaiaia eta Helduen erabilera. Eta, daborduko, egin doguz ekintza batzuk. Dimako kultura-astean alkartearen aurkezpena egin genduan herrian, eta, horren ostean, *Barikuetan be* izeneko ekitaldi-ospakizuna egin zan herri osoan, batez be helduen artean euskerearen erabilera sustatzeko. Ildo horretan, aurrerago be egingo doguz beste ekintza batzuk.

Horregaz batera, Hizkuntzapaiajarean arloan, kanpaina bat egin dogu herriko denda, taberna, jatetxe eta abarretan euskeraz jarteko kartelak, menuak eta danatariko oharrak.

Sensibilizazioaren ilduan, oindino ez dogu gauzatu ekintzarik, baina prestaketa-lanetan gabiz.

**Alkartearen izena abizarie da. Abizaria gezurrezko arrautzea da. Zergaitik izen hori?**

Abizaria oiloari habian ipinten jakon arrautza bat da, berak be arrautzak hantxe ipini dagiazan. Bultzagarri bat, pizgarri bat. Era berean, alkartea herriarrik bultzatu gura ditu: batetik, euskerearen egoeraz jabetu daitezcan, eta konturatu zein dan gaur egungo benetako egoera, eta, bestetik, euskeraz egiteko ahalegina egin dagien.



## Antolatzailea



**TOKIA - LUGAR**  
Igorreko Kultur Etxean  
Kultur Etxea de Igorre

**EGUNA - DIA**  
EZTARLA 2a JULIO

**ORDUA - HORA**  
18:00 etan

## arratiako instalazioak s.l.

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatzeko sistemak  
Aire zurgatze zentralizatua  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea  
Fab. D7  
Tel. Fax. 94 673 62 76  
Tel. 619 736 516  
48140 Igorre Bizkaia

## MERKA LABELA-HARATEGIA

## Eusko produktuak

- Txerriak
- Otolsak
- Buztintzak
- Salbitzak
- Harburgiak

## Arratiako produktuak

- Beseriko otzila
- Dabizak
- Beseriko arrautzak
- Txerriak
- Harriak
- Geroak (fruta eta barazkiak)

Herriko produktuak  
Igorreko Udala  
94 673 62 76  
www.igorrekolabela.com

## UNIDADE DIDAKTIKOA

# Dima ezetuteko unidate didaktikoa sortu dau Dimesten Herri Hezitzaile taldeak



### Jentili eta Jentiltxu.

#### Erredakzioa

Dimesten Herri Hezitzailetik sortutako taldea, unidate didaktikoa prestatzen dabil datorren ikasturtean erabilteko. Hori dala eta, Jentiltxu eta Jentili pertsonajeak sortu ditue, euskera eta bardintasuna bultzatuz, modu erakargarrian, Dima ezetu eta bertoko jakintza eta ezagupenen transmisioa bermatuteko.

Egileak "geuretik hasi eta gero mundura" filosofiagaz, bertoko geografia, toponimia, historia, mitologia eta abar jaso gura izan dabe unidate didaktikoan. "Askotan gure seme-alabak hor dabil Txina-eta ikasten, eta ez dakie ez Indusi errekea zein dan, ezta nondik pasetan dan be. Guk gura doguna da, non bizi diran irakatsi umeai, hori eskolan zein herri

mailan landuteko: toponimia, hizkuntzea bera, arbasoak, jentilak, sorginak, jainkosak... Hori guztia berreskuratu gurako geunke" azaldu deutso BEGITU Ibon Iza Dimesten taldekoak.

#### Jentiltxu eta Jentili

Horretarako pertsonaje bi sortu ditue: Jentiltxu eta Jentili. Diman lehendik egozan euskerearen simbolo diran pertsonajeen egokitzapenak dirala dino Izak. Umeentzat erakargarriagoak izateko, "hamaika urte ingurukoak dira pertsonajeok, eta beti dabiz olgetan".

Jentiltxu eta Jentili jentilak dira eta jentilen indarra daukie. Baltzolak koban dagoan Metrakazulotik sartzean diran bakotxean, denporan aurrera edo atzera egiten dabe eta abenturaren bat gertatzen jakie. "Natureagaz lotuta da-

goz biak. Batak eguzkia dauka kamisetan eta besteak itargia. Gaua, eguna, zikloak, natura... Koloreak, horia eta azula dira, Dimako koloreak. Azkenean, helburua da Dimako historia errekuereate, gero Euskal Herrikora joteko eta Euskal Herriatik mundukora" dino Izak.

#### Abestia

Mitologia eta Jentiltxu eta Jentiliren historiagaz lotutako kantu bat be sortu dabe Dimesten-ekoak. Kantu hori ikasten dabiz orain umeak, unidatea sortu orduko umeak kantua eta pertsonajeak ezetu dagiezan.

Unidate didaktikoa, pertsonajeen aurkezpena eta Dimako mapa bategaz hasiko da. Lehengotik, hirugarren ziklorako prestatuko dabe, gero bigarreneko eta atzenik, lehenengo ziklorako.

## BERBALDIA

# Gatibuko Alex Sardui eta Mikel Caballero Arteako eskolan

#### Erredakzioa

Gatibu taldeko Alex Sardui abeslaria eta Mikel Caballero bajista Arteako eskolan egon ziran bagilaren 17an. Han, taldearen historia konteteaz gainera, sei kantu kantau ebezan eskolako umeak batera. Izan be, Arteako neska-mutikoak alde aurretik ikasita eukiezan kantuok.

Holan, Mikel Caballeroren gitarrak lagunduta "Zu eta ni", "Pailazo", "Gabak zerueri begire", "Zumarragako tren", "Lorettoa" eta "Euritan dantzan" kantau ebezan. Amaitzeko, barriro be "Pailazo" kantau eben, danak batera.

Umeak taldea internet eta kontzertuetatik ezetuten dabela esan eben.

#### Zazpigarren diskoa prestatzen

Umeen itaunai erantzun eutseen Gatibukoak taldearen informazioa emonaz. Holan, Alex Sardui kontau eban taldea 2001ean sortu zala eta lehenengo diskoa,

*Zoramena*, 2003an grabau ebela. Sei disko ditue kalean eta zazpigarrena prestatzen dagoz. Orain arte, guztira 46 kantu sortu ditue. Zazpigarren diskoa Durangoko Azokarako kaleratzea espero dabe.

Gatibuk 2004an emon eban lehenengo kontzertua eta harrezkerotik 700 inguru emon dabezala esan eben Caballerok eta Sardui. Urtea amaitu baino lehen Estatu Batuak eta Mexikotik jira bat egingo dabe: Brooklyn, Mexiko D.F., Los Angeles, Tijuana eta Washington-en bizkai euskeran egindako kantuak entzungo dauz publikoak. Kontzertu bakotxean 15 edo 16 abesti joko dabe. Askok dira Euskal Herriatik kanpo emon dabezan kontzertuak; Bartzelonan, Sevillan eta Irlandan be jo dabe, berbarako.

Alex Sardui abesteaz gainera "danetik" egin dauala esan eban. "tabernari, industri ingeniari, iturjin... telebistan be egin dot behar, liburu bat idatzi dot eta orain lortu dot musikatik bizitea".



## DUNBA

# Errefujiaduak

#### Arratia Institututuko ikasleak

German Garciak gaur egun errefujiaduak munduan bizi daben egoera latzari buruz berba egin deusku.

Herrialdetik iges egin beharrean aurkitzen dan jente kopurua izugarri handia da, eta zergaiti bat baino gehiago egon dagoan arren, lehen gerrea da.

Batez be Sirian, baina baita Afganistanen, Pakistanen, Iraken, Iranen eta Afrikako Saharako hainbat herrialdetan be gerrearen ondorioz

iges egin beharrean dagoz bertako biztanleak. Europara jo gura dabe eta helburu hori lortzeako jarraitu izan daben ibilbidea Turkiatik Greziara (Lesbos irlak) izan da. Baina Europak, europarrok, atek ixten gabiz. Non ete dago gure gizatasuna?

Bideak zarratzeagaitik beste bide batzuk hartu behar izan ditue, Mediterraneo itsasokoak, askoz luzeagoak eta arriskutsuagoak. Hori dala eta, ehundaka bidean geratu dira. Non ete dagoz Giza Eskubideak?

German eta taldetxo bat Lesbosen izan ziran egoera *in situ*, bertatik ikusteko. Bertako egoera itogarria deskribidu euskun, baita Euskal Herrira bueltatu ziranean zer egin eikien pentsetan ibili on-



#### German Garciak emondako berbaldia.

doren errefujiaduen plataformea antolatu eta eratu eben, ahal dan neurrian errefujiaduai laguntzeko

asmoz.

Danon laguntza behar-beharrezkoa da, lagundu daiguzan!



## AGENDEA

### GARAGARRILAK 1 ARANTZAZU

Sanpedroak 19:00etan, txupina jubiladuen eskutik. Buruhaundiak; 19:30ean, Larrain jantza Arantzategaz; 20:00etan, batukada eta poteoa; 21:00etan, parilladea Herriko Tabernan. Ondoren kontzertuak eta erromeria Honat taldeagaz.

#### AREATZA

20:00etan, Cia Barreren *Eskobien atzetik*; 22:00etan, Ortziren *Ilusioa* ikuskizuna. Plazan.

Hilaren 15era arte, Jaietako Kartelen Lehiaketan parte hartzeako aurkeztu daitezke lanak udaltxearen.

#### ARTEA

19:00etan, Arteako Kultura Dinamizetako Parte Hartze Prozesuaren inguruko berbaldia. Kultur Etxean.

#### BEDIA

1etik 15era, Udalak antolatuta Txiki Txokoa.

#### DIMA

Sanpedro jaiak. 17:30ean, Talentu Lehiaketa; 18:30ean, kale animazinoa Ttex elektroxarangea; 19:30ean, umeentzako herri kirolak; 20:30ean, herri kirolak: Inaxio Perurena harri jasotzailearen erakustaldia, Badaiotz sokatira taldea vs. kuadriletako andrak, Olar Herri Kirol Taldearen erakustaldia; Dimako Alkarregaz eta Bakakuko GEDren eskutik bistorra jana; 21:30ean, esku pelota partidua frontoi txikian: Andren partidua. Dimako plazako II. Txapelketako finala; 23:30ean, Play-Back; 01:00etan, kontzertua: Patx & Run eta DJ Ismael.

02:00etan, Ugaba tabernan Los Pollitos Recording (La Polla Records taldearen tributoa).

#### IGORRE

29ra arte, Parkean Jolasean. Astelehena-barikua 18:00etatik 20:00etara. Eguenetan urtekerak 17:00etatik hurrengo eguneko 10:00etara.

#### LEMOA

08:00etatik 14:00etara, hilaren 15era arte, Jaietako kuadrilen afariako (hilak 29) eta herri bazkarirako (hilak 30) txartelak udaltxearen eskuragarri.

#### ZEANURI

09:30etik 14:30era, 22ra arte udaleku irekiak.

San Pedroak Undurragan. Auzo afaria.

### GARAGARRILAK 2 ARANTZAZU

Sanpedroak. 10:00etan, puzgarriak frontoian; 10:30ean, umeentzako jolasak Zaztaparrak Asti Taldearen eskutik; 13:00etan, Igel jokoa plazan; 14:30ean, Paella eta Tortilla Lehiaketetako paella eta tortilla aurkeztu plazan; 18:00etan, patin zirkuitua. 18:00etan, Dardo Lehiaketa eta Futbolin Lehiaketa Herriko Tabernan. Izen emotea Herriko Tabernan; 20:30ean, DJ eta ondoren karaokea.

#### AREATZA

Santomas jaiak. 19:00etan mezea eta parilladea.

#### DIMA

Sanpedroak. 11:00etan, umeen duatloia; 14:00etan, herri bazkaria (mozorrotuta. Gaia: 80ko hamarkadea); 17:00etan, kuadrilen arto probak; 18:30ean, nesken pala partidua eta Bizkaiko Open pelota jaialdia; 20:00etan, talo jana; 20:30ean, kale animazinoa; 23:00etan, kontzertua: MG taldea; 24:00etan, Euskal preso eta iheslariaren aldeko ekitaldia; 24:30ean,



## Rock eta jazz gauak garagarrilean

Areatzako The Quiet Corner euskal-irish tabernan, lau taldek ipiniko ditue rock & roll eta jazz soinuak garagarrieko zapatu gauetan. Hilaren 2an, The Bilus Moon taldea; 9an RockImpas; 16an Elsa Lizundia Trio eta 23an, La Cosa Nostra egongo dira Comerrean. Kontzertu guztiak iluntzeko 20:00etan izango dira.

RockImpas eta La Cosa Nostra taldeak rock musikea egingo dabe. RockImpas-ek betiko rock & roll klasikoa ekarriko dau Areatzara; La Cosa Nostrak, barriz, "mafia usaineko" rocka: pop, heavy metal, rock sinfonikoa eta jazz nahastuz.

Elsa Lizundia saxofoijoleak eta bere taldeak jazz, blues eta bossa nova soinuak beteko dabe gaua. Seguru asko bat-bateko saioak be eskeiniko dauz taldeak The Quiet Corner-en.

kontzertua, Itziarren semeak taldea; 02:00etan, erromeria, Oxabi taldeagaz.

18:00etan, DJ-ak Ugaba tabernan.

#### IGORRE

18:00etan, Igorreko XV. Aurreku Txapelketa. Kultur Etxean.

#### LEMOA

12:00etatik aurrera, umeen jaiak igerilekuetan "Bits jaiak", puzgarria eta berbenea.

Hilaren 9ra arte, Ganzabal Taldeak antolatuta, udako ekintza berezia *Carros de foc* Pirinioetan.

#### ZEANURI

Sanpedroak Undurragan. Goizean, Tortilla Txapelketa; arrastiz, umeentzako jolasak eta puzgarriak; gaubean, txixi-burruntzia eta erromeria.

### GARAGARRILAK 3 ARANTZAZU

Sanpedroak. 10:00etan, mezea; 13:00etan, triki poteoa; 18:00etan, kale antzerkia plazan. Ganso & Ciaren *Walkman*; 18:30ean, Mus eta Briska Txapelketak Montero eta Herriko Tabernan. Izen emotea taberna bietan; 20:30ean, parilladea plazan; 21:30ean, erromeria Jokaldi taldeagaz eta jaien amaierera.

#### AREATZA

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, urtekerea Ibinara.

#### ARTEA

08:30ean, Artea Auzorik Auzo. Plazan.

#### DIMA

Sanpedroak. 14:00etan, Paella Lehiaketa;

18:00etan, lankidetzak jolasak umeentzat; 19:00etan, bertsolariak: Uxue Alberdi, Alaia Martin, Onintza Enbeita eta Nerea Ibarzabal; 20:45ean, antzerkia. Karrika taldearen *Zapoi* antzezlanak.

#### ZEANURI

Sanpedro jaiak Undurragan. Goizean mezea eta barauskarria; ostean, Arbineko tunelean egiten dabazan obren azalpena; arrastiz Xaibor eta txokolatea.

### GARAGARRILAK 8 IGORRE

20:45ean, San Kristobal jaietako txupina. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

### GARAGARRILAK 9 ARRATIA

10:00etan, Arratiako Auto klasikoen III. Rallya. Urtekerea Elizondoko parkinean. Ibilbidea eta ordutegia 11. orrialdean ikusi.

### GARAGARRILAK 10 LEMOA

11:00etatik 15:00etara, Igitie Azokea Elizondon.

### GARAGARRILAK 11 DIMA

09:30etik 14:00etara, 22ra arte, udaleku irekiak.

### GARAGARRILAK 15 AREATZA

Areatzako Jaietako Kartel Lehiaketarako lanak aurkezteko azken eguna.

### GARAGARRILAK 16 ARTEA

Santamañe jaiak. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

#### BEDIA

Hilaren 23ra arte, Bediako Uda Gaztea biak.

#### LEMOA

Tallerreta eta Lemoretako jaiak. 12:00etan, txupina eta kalejireta Atutxen. 14:30ean, bazkaria: oilaskoa eta auzoko Piper eta Tomate Lehiaketa. Bazkalostean jolasak; 19:00etan tortillen aurkezpena eta 20:00etan, kontzertuak.

### GARAGARRILAK 17 ZEBERIO

Austarri Mendi Taldeak antolatuta Upoko jaiak.

### GARAGARRILAK 18 DIMA

Santamañe jaiak Bargondia auzunean.

#### BEDIA

10:30etik 13:30era, hilaren 29ra arte, ludotekea zabalduko da goizez.

### GARAGARRILAK 22 DIMA

Madalenak Lamindaon.

#### UBIDE

Madalena jaiak.

### GARAGARRILAK 23 LEMOA

Hilaren 25era arte, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Pirinioetara. Aguilous (2.976 m.), Robiñera (3.001 m.) eta Punta Roya (2.762 m.).

#### ZEANURI

Ipiñaburuko jaiak. 14:00etan, Auzo Kantu Bazkaria Jon Enbeitaren otxoteak animata; ondoren Briska eta Mus Txapelketak; 19:30ean txokolatea.

### GARAGARRILAK 25 AREATZA

Folklore Bizian Jaialdia. Galdakaoko Andra Mari jantza taldea, Irlandako Ensemble Folklorique Absolutely Legless Dance Company eta Brasilgo Ensemble Folklorique Ballet de Amazonia izango dira.

#### ARTEA

Santiago jaiak. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

#### LEMOA

Arriñoko jaiak. 12:00etan mezea eta ondoren barauskarria.

#### ZEANURI

11:30ean Meza Nagusia; ondoren barauskarria eta Bola jokoa (Zeanuriko Kofradi Bola Txapelketarako puntuagarria). Ipiñaburuko.

### GARAGARRILAK 26 ZEANURI

12:00etan Arimen Mezea eta ondoren barauskarria Ipiñaburuko.

### GARAGARRILAK 27 LEMOA

Herriko jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

## IRAGARKI LABURRAK

### SALDU

#### BIZIKLETEA SALGAI

Focus Black Forest bizikletea salgai. Urkulea: Rock Shox Recon Silver RL 100 mm. Aldagailu eta biela: Shimano Deore XT. Osagaiak: Concept SL. Jantak: DT Swiss. Gurrupak: Mountain King. Barria: 600 euro. 688 602 516 (Mikel).

#### PISUA SALGAI

Zeanuriko, plazan, duplex-a salgai. 100m, 3 logela, komun 2, garajea eta trastelekua. Interesauta egon ezkerro, 686 495 724 telefonora deitu.

#### MAKINARIA SALGAI

Bedarra zabalduko eta batzeako makinak saltzean dodaz. Interesauk deitu telefono honetara 628 041 526.

### DANERIK BEHAR BILA

Etxeko lanak egiten dodaz, 08:30etik 16:00ak arte. Kotxeduna. Dimoztarra. Telefonoa 634 438 725.

#### BAZKIDE BILA

Arratiako euskerazko aldizkariak

bazkideak behar ditu. Interesauk 649 979 115 telefonora deitu.

#### PARKING PARTZELA ALOKAIRUAN

Igorren, Lehendakari Agirre kalean, parking partzela bi alokairuan. 30€ bakoitxak. 659 395 911.

#### OPARITZEN DA

Urte t'erdiko artzai txakurra oparitzen da. Telefonoa: 635 207 386.

#### GARRAIOLARIA BEHAR DA

Enkarguak etxera erroteko garraiolari autonomoa behar da. Deitu 94 673 60 55 telefonora.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)-era. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

### Zenbaki honetako saridunak:

1 **Axpe Goikoa Jatetxeak emondako txakolin kajatxoak.**

2 **Suzien Mendi Klubak emondakoa erropa prenda bat.**

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

Garazi Yurrebaso (Arantzazu)

Arantza Etxebarria (Bilbo)


zozketetan sartuko zara.



BEGITUK 13 urte eta ehundaka lagun.

## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Gorago joan. Birritan, umeen berbetan, min. 2.- Lastima. Mila eromatar. 3.- Edabe garbi. Zulo. 4.- Nitrogenoa. Garagarri. 5.- Erreza, leinua. 6.- Hilotz. Bokala. 7.- Pozik. Hotz lar egiten dauanean dinogu. 8.- Letra bat. Errenkada. 9.- Xenonaren sinboloa. Legor.

### GOITIK BEHERA

1.- Aholku. Gaixo. 2.- Sugar. Botilatik edatearen ekintza adierazoten dau. Bokala. 3.- Sanskritoko silaba sagradua. Sasoi. 4.- Nahaste-borrastea. 5.- Eskuratu. Zidarra. 6.- Letra bat. Biga, bi izenordaina. Urtaro. 7.- Apal. Bits.



Topau militarren arteko zazpi maila.

T	O	R	L	E	J	U	A	M	I
X	J	E	N	E	R	A	L	A	S
I	Z	A	I	A	T	I	P	A	K
K	A	R	T	X	O	L	E	Z	O
G	E	R	D	A	R	B	O	D	A
O	D	U	M	E	L	T	A	U	P
E	S	K	A	T	E	M	L	K	I
N	A	S	U	N	T	A	F	U	R
O	R	L	A	E	Z	U	E	R	I
E	J	A	E	I	B	E	R	L	A
G	E	R	O	N	I	M	I	B	D
H	N	H	U	E	O	U	Z	A	L
I	T	X	A	T	U	R	A	B	U
G	U	R	A	D	I	K	O	R	T
O	A	N	U	R	E	L	A	K	A

# AKI MI KO

Zorrozkilo



**sew**  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tlfnoa. 94 631 92 96 • sewmoda@hotmail.com

**BIZARGINAK**  
Lilea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu -Bixama egin eta beukunduten dogu  
-Rober 630 743 543 -Manuel 661 848 793  
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

**AKEITEGIA**  
**GAY & LORA**  
IGORRE

**Igorren ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea aitzol@coavn.org - 675 705 111

**Recreativos Gubi S.L.**  
Angel Larrea  
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
Tlf. 94 631 92 00

**GARANTXE Autoeskola**  
TEORIA EUSKARAZ ZEN ERDARAZ  
Baimenak: A1, A, BTR, B  
Lehendakari Agirre 34  
Tlfnoa: 94 631 91 52  
48140 IGORRE (Bokala)  
garante@autoeskola.net

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAk: AUTOAK, ETXEBIZITZAK, DENDAK, ISTRIPUAK, BIZITZA...  
ABOKATUAK: ZUZ. ZIBILA, KONTSUMO ZUZ., ADMINISTRAZIO ZUZ., INGURUGIRO ZUZ.  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA, ZERGAK, KONTABILITATEA  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bokala)

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

**Jose Luis Corbacho**  
pintura lanak  
Sabino Arana, 3, 3a  
Igorre 48140 Bokala  
94-673-70-87  
609-79-40-54

**Dia %**  
**PEDRO AUTOSERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**Pinturas Anatia**  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**ARRATIA AUTOESKOLA**  
karneta eskolaraz bain ezinez  
Garbe, 10 - 48140 Igore (Bokala)  
Telefonoa 94 631 56 31 Faxa 94 673 70 63  
e-posta: unda@arratia.net

CRISTINA VIDAL

## "Masa-turismoaren kontrakoa da etxe trukea"

Etxeko erosotasun guztiakaz bihurtzea gustatzen jakie batzuei. Munduko beste puntan etxea eukitea. Diru asko gastatu barik hori egin ahal izateko etxeak trukatzeko ditue. Cristina Vidal Aretzakoa Bilbon bizi da eta orain dala lau urte sistema hori erabilten animau zan. Bikotea eta ume bi dira eta etxe "sano handia" daukie Bilboko Zabalburun.

Etxe trukearen munduak jentea eta lekuak ezetuteko mila aukera emon deusala dino Aretzakoa.

### Erredakzioa

#### Munduko beste puntan bakarrik ez, hurrago be euki leiteke etxea, etxea trukatzeko sistema honegaz, ezta?

Bai. Guk etxeak hondartza ondoan eta eski-estazioetan hartu doguz, Gabonak Madril eta Bartzelonan pasau doguz... Orain dala lau bat urte hasi ginan honetan eta 10 trukaketa inguru egin doguz eta inoz ez dogu esperientzia txarrik izan. Ondino ez dogu salto handia egin.

#### Eta zuenera urruneko jentea etorri da?

Aurtengo udan, gure etxean Irlandako jubildu bikote bat egongo da hamar egunez.

#### Noz eta zelan egin dozue etxe trukaketak?

Etxe trukeak egiteko, horretarako dagoan webgune baten emon behar da izena. Trukea egin aurretik, etxe haretan egon diranak egiten dabazan balorazioak irakurri daitezke eta hori lagungarria izaten da etxe hori edo beste bat aukeratzeko ebatzia hartzeako orduan.

Oporaldian egiten dira trukeok: udan, aste santuan, Gabonetan... Eta normalean umeak dituen familiak erabilten dabe bihurtzeko modu hau.

#### Zergaitik?

Askoz ekipaje gitxiago eroan behar dalako. Ez dago zertan bizikletarik edo jostailurik eroan, esate baterako. Gainera, balio hezitzailea dauka etxe trukeak. Umeak gauzak zaintzen ikasten dabe, ze euren badakie ez dagozala euren etxean eta hango gauzak zaindu behar dabezala. Gauzak konpartiduten be ikasten dabe: euren bizikletak eta jostailuak, euren gauzarik preziazuenak beste batzuei ixten ikasten dabe. Gainera jente zoragarri asko ezetuten da eta eurakaz kontaktua mantenduten dogu askotan.

#### Esperientzia txarrik izan dozue?

Orain arte ez. Orain arte, bentajea baino ez dogu topau. Eta sano jente detailzaleak egin dogu topo. Etxean sartu eta otzara bat topau afarirako produktuak, edo jai egun baten ailegau eta hozkailua beteta...



Guk etxean inguruetako mapa bat ixten dogu eta guri gehien gustetan jakuzan lekuen informazioa: zer bisitatu, non jan, umeakaz nora joan eta abar, gura datorrena bere etxean sentidu daiten.

#### Asko zarie holan ibiltzen zariarik?

Bai. Igaz gurean egon zan Giro-nako familia bat Asturias, Kantabria eta Euskal Herria bisitetan egoana. Hiru egun geratu ziran eta joan aurretik WhatsApp talde bat eukiela komentau euskuen. Etxe trukeak egiten ebezan lagun talde batek hasi eban WhatsApp taldea eta gaur egun 200 familia

dira. Taldeak 6 kudeatzaile ditu eta oso ondo funtzionetan dau. Zati bitan dago, ze WhatsAppeko taldeen topea 100 lagun dira. Bertara zeure etxea eskeini edo trukea eskatzeko bakarrik idatzi daiteke goizeko 10:00etatik 22:00etara arte. Familia guztiak errespetu handiz jokutzen dabe.

Masa-turismoaren kontrakoa da hau. Lekua, hango biztanle bazina lez ezetuteko aukerea daukazu, anfitrioi baten etxean lo egin eta gura izan ezker, bere aholkuak jarraitu. Etxe trukaketea filosofia bat da esperientzia jatorrago izateko bidaiarien arteko hartu-emonetan oinarritzen dana.

*"Hamar trukaketa egin doguz eta inoz ez dogu esperientzia txarrik izan"*

# ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19  
Amorebieta - Lemoa errep.  
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06  
Fax. 946 31 20 26  
alkizabal@alkizabal.net

[www.alkizabal.net](http://www.alkizabal.net)

Basoak garbitzeko makineria

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKUA ETA SALMENTA